



**1** 963an eta ondorengo urteetan Euskal Herriko herrialde guztietan Auzo Lan moduko bat hasi zen gure hizkuntza zaharra berreskuratzeko, desagertzeko zori larrian baitzegoen milaka urtetako bizitza eta erabilera izan ondoren.

Egoera horren jatorrian hainbat faktore zeuden, baina, zalantzarik gabe garrantzitsuena Gerra Zibila izan zen, garaileek euskararen aurkako legeak eman baitzituzten, erabiltzea eta irakastea debekatuz eta jazarpen izugarria eginez.

Artikulu txiki honen helburua da, batez ere, omenaldia eskaintzea ehunka parte-hartzaile anonimo horiei, beren ahalegin, buru-belarri aritze eta sakrifizioarekin helburu hori lortzea posible egin baitzuten.

Hasieratik emakumea guztiz barneratu zen esperientzia honen etorkizuneko arrakasta bermatzeko prestatu ziren jardueretara. Eta, batez ere irakaskuntzan, soilik emakumeek zuzenduta, egungo ikastola bilakatuko zen etorkizunaren enbrioi, prestigio handia duen hezkuntz erakunde euskalduna sortuz eta ziklo guztietan kalitate bikaina erakutsi duen ikastola lortuz.

Baina helburu horrek (hasieratik argi eta garbi genuena) alboan beste jarduera batzuk

behar zituen, beharrezko ekonomia sortzeko, eta hasitakoa aktiboan mantentzeaz gain hazkundera bermatzeko.

Berriro ere, emakume zein gizonak beste jarduera batzuekin hasi ziren, gure komunitatean oso ohikoak ez ziren produktu batzuen komertzializazioari bideratuak (Azoica), batez ere tokiko komertzioari kalterik ez ekartzeko.

Adibide gisa, elkarrizketa bat izan genuen Eduardo Chillidarekin, eta gure ideia eta jardueren berri eman genion, eta, bide batez, laguntzaren bat eskatu genion.

Emaitza ezin hobea izan zen. Bere bi irudi pertsonal oparitu zizkigun (uste dut "egile probak" izenez ezagutzen direla).

Ikusgai jarri bezain pronto, gure jardueren berri zuen alemaniar batek irudi horietako bati buruz interesatua zegoela esan zigun eta berak jarri zion 75.000 pezetako balioa. Adituekin kontsultatu genuen eta oso ongi baloratua zegoela esan ziguten. Hortaz, salmenta egin genuen.

Baina hizkuntza baten iraupenerako beharrezkoa da egunerokoan erabiltzea. Hori dela-eta, erronka berria dugu aurrean, oraingo honetan ikasgeletatik kanpo.



Ama Euskera



Antzerkiak




Besterik




Bisitak



Gabonak



Gida Batzordea



Eraikuntzak




Irteerak

Kilometroak



Kirolak



Argazkiak:  
Orereta Ikastola



Omenaldiak